

## Michelingo langileen kaleratze baldintza berdinak eskatzen dituzte

□ Eulenko langileek asteazkenero enpresaren aurrean elkartuko dira kaleratze baldintza egokiak lortu arte

Eulen S.A. enpresak Michelingo biltegiko 25 langile inguru kaleratuko ditu urte bukaeran, Eulen Enpresa Batzordeko ordezkariak, UGT, ESK, ELA eta LABeko ordezkariak, helarazi dutenez. Hau dela eta, biltegiko langileek kaleratze baldintza hobeto eskatu dizkiote enpresari. Iraila bitartean langileak asteazken eguerdian enpresaren aurrean elkartuko dira euren egoera salatzeko eta kaleratze baldintza hobeto eskatzeko.



Michelin biltegiko langileak eta sindikatuak enpresaren aurrean asteazkenan egin zuten kontzentrazioan

Michelin-Lasarte enpresak Lehiakortasuna Hobetzeko Plana martxan jarri zuenetik, fakturiko langileek ez dute garbi ikusten euren etorkizuna. Lasarte-Oriako faktorian 800 lanpostu galduko zirela informatu zuten sindikatuak ordezkariak: 360 langile aurre-jubilazioen bitartez, 150 langileetatik batzuek Michelinek Gasteizen duen lantegira joango dira, besteak kalera eta ez ditugu ahaztu behar azpikontrata bidez enpresarentzat lan egiten duten ia 300 langileei ere enpresaren erabakiak kalte eragingo liekeela.

Eulen S.A enpresak biltegi-girako azpikontratatuak "25 langile kalera joango dira urte amaieran", diote Enpresa Batzordeko kideek, "azpikontratuak bigarren mailako langile sentitzen gara. Plantillako langileekin alderatuz, gu kale gorria joateko arriskuan gaude, aurre-jubilaziorik, leku aldatarik edo kalte ordainik gabe. Horregatik Michelingo langileen kaleratze baldintza berdinak eskatzen ditugu".

### Biltegiko langileen eskaera

Eulenko Enpresa Batzordeko ordezkariak Michelin biltegiko langileen eskaerak zeintzuk diren azaldu dizkigute: "Bate-tik, lanpostuen leku aldatetak ematen baldin badira, behin betikoak izatea eskatzen dugu, ondorengo baldintzekin: lan egindako urte bakoitzeko 55 egunetako konpentsazio ekonomikoa jasotzea eta kontratuaren egonkortasunaren maila hobetzeko konpromezua. Basetetik, bajek kalte ordaina jaso dezaten eskatzen dugu: lan egindako urte bakoitzeko 60

egunetako konpentsazio ekonomikoa jasotzea eta langabezian ematen diren prestazioak jasotzeko eskubidea".

Batzordeko ordezkariak jakinarazi digutenez, Eulenko zuzendaritzak langileen aldarrikapen berri du.

### Eulenko eskaintza

Eulen S.A. enpresako zuzendaritzak langileei helarazi dien eskaintzaren berri izan dugu eta idatziak horrela dio: "2008ko abenduaren 31ean desagertuko diren kontratuei irtenbide bat bilatzeko asmo-

arekin Eulen S.A. enpresak ondorengo lanpostuetarako jendea behar du: Guadalajarako Leroy Merlin-ean 5 karretilero eta koordinatzaile bat behar dituzte eta Burgosko San Miguel enpresan 5 karretilero".

Batzordeko ordezkariak zuzendaritzak egin duen eskaintzaren aurrean oso kritikoa azaldu dira. "Aste honetan egin digun lan eskaintzak ez du ez kontraturik, ezta kalte ordainik bermatzen. Gainera, zein langile joango da Guadajalarara lana egitera?".

Eulenko langileek euren egoera aldarrikatzen jarraituko dute, "gurekin ahaztu ez daitez. Gure egoera ezegonkorra azpikontrata sistemaren ondorio da", honen harira, "Eulen S.A. enpresako zuzendaritzak langileen eskaerak asetuko dituen erantzun azkarra izatea espero dugu".

“ Biltegiko hogleita bost langile kalera joango dira urte amaieran

“ Enpresaren eskaintzak ez du ez kontraturik, ezta kalte ordainik bermatzen



Aurtengo San Pedro Jaien balorazioa egiteko garaia iritsi da /04-05

### KULTURA ■ 3

Igandean ospatuko da Okendo plazan Santa Ana artisau azokaren XXV. edizioa

### KIROLA ■ 6

Santa Ana pala txapelketako final-laurdenak jokatu dira

### KIROLA ■ 6

Santos Uribe Euskadiko txapelduna bere kategorian Durangoko txapelketan



ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

BELARTZA JATETXEA TABERNA

Larunbata gaua eta igandea itxita!

Asteburuko menua 11€

Eguneko menua  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak

...

Belartza poligonoa  
Gurutzegi kalea 15, 4A Pabillioia  
20018 Donostia  
Tel.: 943 376082  
www.webpractica.com

**Neure kabuz**



**Denbora da maisu**

Hamar urte. Horiexek pasa direla gogoratu dugu egin egunkariako eta irratiko langileok egun hauetan. Karmengo amaren bezperan orain hamar urte Garzonen agindupean, egoitzak miatu, eta kontseiluko kideak atxilotu egin zituzten.

Biltzen jarraitu genuen hiltzatu ziguten lantokiaren aurrean. INEM, Gobernu zibil, herriko plaza eta jaietan, zenbat batzar! Zenbat mobilizazio!

10/98 epaiketa luzea eta sententzia etorri zen gero. Eginek zer zuen ezlegezko, zer zuen terrorismoarekin nahas zitekeenik, jakin nahian gelditu ginen. Baina, espetxean sartu zituzten enpresaren ardura zutenak. Oraindik bertan dauzkate.

Komunikabideetan agertu gara. Irratietatik deitu gaituzte. Langile taldeak izan dituen nahiak jaso dituzte: gogoratu, zigortuei elkartasuna adierazi eta adierazpen askatasuna aldarrikatu.

Hamar urte pasa behar izan dira. Motibu politikak zeudela, justifikatua egon zitekeelaren zantzuak erabat ezabatzen. Denborak erakutsi du ezetz. Euskalgintza, nazio ikuspegia, boterearekiko disidentziarekin, nazio eraikuntza, errepresioa edo torturarekin lotura izateak sarekada beraren aurrean jartzen duela ikusi da.

Duela bost urte Euskaldunon Egunkaria itxi behar izan dute, Eginekin kontuak hasi baino ez zuela egin konturatzeko. Egin itxi zutenean, nola "ausartu" ziren ikusi arren, gehiagora ez zirela ausartuko pentsatzen zuenik ba zen orduan. Denbora izan da maixu. Zoritzarrez.

Ixiar Arteaga

**Zorion-agurrak**



**Omar**

Zorionak. Zortzi besarkada handi familiaren partetik. Muxu asko.



**Ambar**

Zorionak zure laugarren urtebetetzean zure gurasoen partetik.



**Erika**

Zorionak zure lehenengo urtebetetzean. Aita-txo eta Amatzoren partetik. Muxu asko!



**Pablo**

Zorionak familia guztia- ren partetik. Hamaika muxu.



**Nora**

Zorionak bihurri 7 muxu goxo, Ane eta gurasoen partetik



**Oier**

Zure aitatzoren partetik muxu handi bat.



**Iker eta Ander**

Zuen bederatzigarren urtebetetzean besarkada handi bat familia guztia- ren partetik.

**Guardiak**

- Ostrala, 18**  
Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567
- Larunbata, 19**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549
- Igandea, 20**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549
- Astelehena, 21**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151
- Asteartea, 22**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549
- Asteazkena, 23**  
Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567
- Osteguna, 24**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Telefonoak**

- Osasuna / Larrialdia**
- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 370000
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112
- Udala**
- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Bakezko epaitegia ... 943371629
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- Zentro Zibikoa ... 943363958
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Jakan alokairuan bi logela duen apartamentua, uztaila eta abuztuan. Urbanizazioak igerilekua du. Tel.: 639 659583.

• Urbarten garaje marra bat alokatzen da. Tel.: 943 363524 (Juli)

• Ria de Vigon (Cangas-Moaña), unifamiliarra den etxe bat alokatzen dut, terraza eta gune berdearekin. Merkea, abuztua eta iraila. Tel.: 690679810 (Maria).

• Bezero fijoak dituen eta martxan dagoen locutorio bat traspasatzen da Lasarte-Orian. Tel.: 666 773813.

**Salerosketak**

• Bizikleta bat erositako nuke 7 urtetako neskato batentzat. Tel.: 605 770436.

• Converse All Star Chuck Taylor (arrosak) 36ko zenbakia saltzen ditut. Estreinatuta gabe bere kaxan 35 eurotan (Forum-en-59 eurotan). Tel.: 647 995 050, Mikel..

• Volkswagen California T-4 , 2,5 TDI autokarabana salgai. 2000.urtekoa, guztiz ekipatua oso egoera onean. Tel.: 649 895858 / 650 422607.

• Logela bateko altzariak saltzen dira. Armairu handi bat, ohea (kanapea) eta bi gau-mahai. Tel.: 943 362213

• Panderoa salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Salneurria, 60 euro (943579565).

**Lan-eskaintzak**

• Neska bat behar da logelak garbitzeko, Barazar ostatuan. Goizeatik 2 ordu egunero. Tel.: 943 363358.

• Ile-apaindegi baterako neska bat behar da jornada erdirako. Tel.: 647 821 361.

• Lasarte-Oriako Biyak Bat zahar etxeko gizonzkoen ile-apaindegian pertsona bat behar dute. Pelukeria tituluduna eta herritarra izateko baloratuko da. Hautagaiak bulegoan aurkeztuko beharko dira, astelehenetik ostialera 10:30etik 12:30era.

**Lan-eskariak**

• Neska arduradun eta esperientziadun batek etxeko garbiketarak egiten, haurrak edo adinduek zaintzen lan egingo luke. Berehalako hasteko prest. Tel.: 627 764106.

• Lasarte-Oriako mutil gazteak abuztuan lana egingo luke. Hostelerian lanean ibilia eta autoa gidatzeko baienez. Tel.: 677 163751

**Bestelakoak**

• Etxean botatzeko dauden muelle zaharrak hartzen dira: ohea, armairuak... Tel.: 677868172

**Oharretarako:**

943 366858 • txintzarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4

**Jaiotzak**

Gael Iñgo Arroyo, uztaillaren 2an.



**Heriotzak**

Jose Maria Otaegi Otaegi, uztaillaren 13an 87 urte zituela.



**Gazte Informazioa**

Manuel Lekuona kulturetxea  
Tel.: 943 376181

**Expo Zaragoza 2008**

Gazte-Txartelarekin deskontu handiak izango dituzue Zaragozako Nazioarteko Erakusketan. Deskontua aplikatzeko, sarrerak leihatilan erosi behar dira (ez kutxazainean, ezta Internet bidez ere). Informazio gehiago 976716856 edo helbide honetan: carnejoven@carnejoven.es.

**Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**

# 25. urtez eskulanen Azoka Okendon

■ Santa Anarekin batera urtero bezala Euskal Herri osoko hainbat artisau etorriko dira Lasarte-Oriara

TXINTXARRI

Santa Ana Eskulangintza Azokak zilarrezko ospakizuna du aurten. 25 urtez segidan antolatu da herrian artisautza erakusketa handi hau. Uztailaren 20an Euskal Herriko hamaika txokotako artisauak etorriko dira euren lanak erakustera eta saltzera.

Guztira danetariko 25 postu jarriko dira Okendo plazaren inguruan eta geltoki kalean, goiz eta arratsalde zabalik egongo direnak. Azoka goizeko 10etan irekiko da eta arratsaldeko 8ak arte izango da zabalik.

Gainera beste hiru artisauak zuzen-zuzenean egingo dute lan Okendoko frontoian. Matxinbentako Iñaki Agorrezabalak gaztainondoarekin saskiak egingo ditu, Vianatik etorriko den Blanca Jubetek kandelak argizariarekin landuko ditu eta Carmen Gorostiagak berriz, eskumuturrezko pitxi eta beirazko apaingarriak egingo ditu.

Esan bezala, danetariko postuak izango dira, goizean 10:00etatik eguerdiko 14:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 20:00etara, besteak beste, baserri eta itsasontzien maketak, narrazio lanak, egurrezko jostailuak, hamaikak, bitxiak, zumezko saskiak, makilak, narrazio pilotak,



Euskal Herriko hainbat tokitako artisauak herrian izango dira igandean goiz eta arratsaldean.

zurezko koilareak, beirazko piezak... egiten dituzten artisauak etorriko dira Lasarte-Oriara euren eskulanen azokan erakustera eta saltzera.

## Bertako artisauak

Okendo plazan jarriko diren postuetan batzuk lasarteoriarak izango dira, esaterako, narrazio lantzen duen Santos Serbando Iglesias, ehoziri lanak egiten dituen Gumer

Perez eta lagunak, eskuz labanak egiten dituzten Jose Mari Berasarte eta Cesar Bozal eta baita fimo eta abalorioak erakutsiko dituen, Jokin Ayerregaray ere.

Aitonon-amonon etxeko esku-lan taldekoek ere parte hartuko dute Azokan eta Meritxe Galdosek lagunduta urtean zehar egindako lanak erakutsiko dituzte. Azkenik, Ekain liburudendako Iñaki

Chourrautek liburuak plazara aterako ditu aurten ere.

Herriko artisauetako batek, hain zuzen ere lehen aipatutako Jose Mari Berasartek, laban bat egin dio Martin Berasategi sukaldariari, eta bereziki berarentzat egindako laban hori igandean eguerdiko 12ak aldera eman nahi dio. Dena den, sukaldariak igande eguerdian bertan izateko aukera izango duenik ez da

ziurtatu oraindik.

Giroa ez da faltako, muskak lagunduta, aintzinako hainbat ofizio ezagutzeko aukera eskainiko da.

Sagardotegi kalean hainbat elikagai dastatzeko aukera ere izango da: pastelak, hamaika motatako ogiak, ezta... Beraz, herriko erdigunean moku bat egiterik izango da Artisau Feria ikusten den bitartean.

## Karmengo Ama egunaren ospakizunak

Oriarrentzako egun handia izan zen asteazkena, Karmengo Amaren eguna baitzen, eta hainbat ekitaldi antolatu zituzten ospatzeko. Eguerdiko 12etan Karmengo Amaren kaperan meza ospatu zuten Juan Luis Murua, Ramon Uribebebarria eta Inaxio Agirre gidaritzapean.

Mezan bertan ere ikuski-zun ederrak eskaini zituzten, alde batetik dantzariak Agurra dantzatu zuten eta Amaia Dorronsoro piano-joleak eta Pilar Catalina sopranoak ere hartu zuten parte. Meza ondoren Villabonako Solano Tikitixa Eskolako ikasleek auzoko kaleak girotu zituzten, batzuk dantzan jartzea ere lortu zuten. •



## Celestinok azken lana erakutsi digu

Celestino Rivera lasarteoriarak egin berri duen lana enkarguz egin du. Lehen ere egin izan dizkio lanak Jose Mari Etxezarretari (bere abizenaren armarria, adibidez), eta oraingoan Etxezarreta-Pajuelo abizenekin armarria egin du.

Badirudi, Jose Mari eta bere emazteak etxean jartzeko nahi dutela pagoan eginiko armarria. Hiru hilabete pasa ditu Celestinok lana bukatzeko. Zazpi bat urte badira Celestino honelako lanetan hasi zela, baina ez dela nekatu esan digu. •



Kiroletako agenda

# Datorren astean Santa Anako finala

Astelehen eta asteartean jokatuko dira Okendon izango diren txapelketako azken finalerdiak

**I ZALDI LASTERKETAK I**

**Igandea 20**

17:30ean

1. lasterketa, **Radio San Sebastian** saria, 1.300 m.

Zaldia	Pisua	Oklava	Zakifazioa	Postularria	Puntuak
1 EL CHILACOFI	57	O.D. DE URBINA	C.VADARCHE	R. LOPEZ	1
2 EL ULTIMO AMOR (IRE)	57	R.H. RIVAYAS (E.N.C.)	C.VADARCHE	R. LOPEZ	10
3 NAVARON	57	B.FAYOS	V.CORTAVAL	J.C. FERNANDEZ	12
4 OPAL OF FIRE (IRE)	57	B.MORENO	C.GREEN RIDER	LODMEZ	18
5 BOLANDROFFI	57	D.A.T. OVAR	V.URON-OVITA	B.MARTIN S	2
6 VIVERO	57	J.M.BORRERO	C.PEÑERA SAT	M.ALONSO	3
7 HISPANIA (S)	55,6	F.JIMENEZ	C.HISPANIA	F.RODRIGUEZ	8
8 KALUDALAD (RHEP) (F)	55,6	J.BORRERO	C.SARSA	M.DELCHER S	9
9 NIVE SANTOS	55,6	J.E.JARCOVIRY	C.HOTELES SANTOS	A.PEREZ VEGA	13
10 PERSIAN LAKE	55,6	A.A.GALLARDO	REZA PAKDOZI	F.RODRIGUEZ	14
11 ZARABRE	55,6	M.BORRERO	C.PENA NEGRA	V.DUREPARE	5
12 EL FERIE	55	S.MURAU	C.MARINA	G.ARIZCORRETA	2
13 SPORTS BLENDUM (USA)	55	P.SODORO	C.BERING	B.AVAL	2
14 SPRINTUAL (S) (IRE)	53,6	J.HORCAJADA (S)	C.D.O	V.DUREPARE	13

18:05ean

2. lasterketa, **Coca-Cola** saria, 2.200 m.

Zaldia	Pisua	Oklava	Zakifazioa	Postularria	Puntuak
1 BICO (S) (S) (S)	59	N.BERTEZ	C.MARTIN	A.NAZ	5
2 FARAME (IRE)	57	J.BORRERO	C.MIRANDA	M.DELCHER S	7
3 FINO CUBAT (F) (S)	57	O.D. DE URBINA	C.SALMEAN	R. LOPEZ	9
4 HOT (S) (S) (S)	57	J.M.BORRERO	C.PENAROTA	C.SALIPOLI	2
5 SAN PALLER (S) (S)	57	B.FAYOS	C.DH. LOS ASPIRANTES	V.CALLEJO	12
6 NESTAR (S) (S)	57	O.J.FLORES	C.ROBER	B.AVAL	4
7 SALAHAD (S) (S)	57	R.H. RIVAYAS	C.TIZIANO	M.J.PEREZ	10
8 DONA (S) (S) (S)	57	J.E.JARCOVIRY	C.BARROTEGEDI	G.ARIZCORRETA	8
9 BICO (S) (S) (S) (S)	56	M.BORRERO	C.EL BENO	A.CARRASCO	6
10 HERRA (S) (S) (S)	56	J.HORCAJADA	SANTAGO MENDEZ	J.L. DE SALAS	3
11 SMAR (S) (S) (S)	56	F.JIMENEZ	C.ECU	B.MARTIN V	6
12 SANTA LUCAYA	55,6	P.SODORO	JOS. HORMACHE	A.TOMAS	11
13 MONTENEGRO	54,6	L.SALAZAR	CELO MENDEZ	C.DELCHER	1
14 SABBRA (F) (S)	54,6	B.MORENO	AS.MARQUES LA MORANA	C.ALONSO	11

18:40ean

3. lasterketa, **La Kabutzia** saria, 2.200 m.

Zaldia	Pisua	Oklava	Zakifazioa	Postularria	Puntuak
1 ARTAM (IRE)	59	J.BORRERO	FELIX VELA	M.DELCHER	5
2 BENTA BERREZ (S)	56	N.BORRERO	C.ALIARRE	A.NAZ C	2
3 JORDO (S) (S) (S)	56	J.HORCAJADA	C.HV	J.L.MARTO	6
4 TRUBULE (S) (S) (S)	56	P.SODORO	C.BUSUS	M.BORRERO R	3
5 BOLL (S) (S) (S)	56	J.M.BORRERO	C.HERRIN	M.ALONSO	1
6 INDIAN EL (S) (S) (S)	56	B.MORENO	AS.MARQUES LA MORANA	C.ALONSO	4
7 MANDACO (S) (S)	55	B.FAYOS	C.RIO CURAS DL	A.SABASA	9
8 BILKAL (S) (S) (S)	54,6	S.MURAU	C.ALDARA	G.ARIZCORRETA	7
9 NACHT (F) (S) (S)	54,6	M.BORRERO	C.HIF.HIF	V.DUREPARE	8

19:15ean

4. lasterketa, **Joyeria Ayerdi** saria, 1.600 m.

Zaldia	Pisua	Oklava	Zakifazioa	Postularria	Puntuak
1 PRINCE DE VIANA (S)	52	F.JIMENEZ	C.HISPANIA	F.RODRIGUEZ	10
2 DELTA (S) (S) (S)	56	B.BORRERO (S)	C.LOS TONEL	F.RODRIGUEZ	2
3 JAKA (S) (S) (S)	56	J.HORCAJADA	C.HV	J.L.MARTO	6
4 LE BIG (S) (S) (S)	56	S.MARTIN	C.SAN ALIXO	E.DOLGADO	3
5 CASAH	55	J.E.JARCOVIRY	V.MLTAR	J.P.ESPINOSA	5
6 BONTON (S) (S) (S)	54	J.BORRERO	C.FACTOR SORREJA	G.ARIZCORRETA	1
7 HERRA (S) (S) (S)	54	C.CAZALIS (S)	C.EL SABLE	B.MARTIN S	12
8 OLSE (S) (S) (S)	51	A.SANDEZ M	C.CASCORRO	B.MARTIN S	5
9 OIATZ (S) (S) (S)	51	L.SALAZAR (S) (S)	C.EL SABLE	E.PUENTE	7
10 KRATZ (S) (S) (S)	51	A.A.GALLARDO (S) (S)	C.HISPANIA	F.RODRIGUEZ	8
11 BOST (S) (S) (S)	51	R.H. RIVAYAS (S) (S)	C.MATAS BORRERO	N.BORRERO S	1
12 EL QUERENDON (S)	51	B.MORENO (S)	C.HOTELES SANTOS	A.PEREZ VEGA	6

19:50ean

5. lasterketa, **Gipuzkoako Foru Aldundia** saria, 2.200m.

Zaldia	Pisua	Oklava	Zakifazioa	Postularria	Puntuak
1 COCH ONT (F) (S)	59	P.SODORO	C.BERING	B.AVAL	5
2 BRAT (S) (S) (S)	56	J.HORCAJADA	C.DEBESA LA TOMA	J.CALDERON	3
3 SAGOO MOOT (S) (F) (S)	55,6	B.MORENO	C.GREEN RIDER	C.ALONSO	1
4 BORB (S) (S) (S)	56	J.BORRERO	C.MARINOS	M.DELCHER S	4
5 PALAT (S) (S) (S)	56	O.D. DE URBINA	C.VADARCHE	R. LOPEZ	2

20:25ean

6. lasterketa, **Merkabugati** saria, 1.600m.

Zaldia	Pisua	Oklava	Zakifazioa	Postularria	Puntuak
1 WALLAH	52	O.D. DE URBINA	C.VALLADOLID	M.J.PEREZ	12
2 SHEET ALBANI (F) (S)	52	R.H. RIVAYAS	C.RIBERA	J.L.MARTO	15
3 AC COM (S) (S) (S)	52	B.FAYOS	C.HORTENA	J.CALDERON	18
4 BORAN BORAN	52	P.SODORO	C.QUESSAMAR	E.DOLGADO	3
5 UNBERT (S) (S)	51	S.MURAU	C.SETA DE CUBILLA	G.ARIZCORRETA	18
6 MISTEN BRAS (S) (S)	50	F.JIMENEZ	C.LOS TONEL	F.RODRIGUEZ	13
7 BEMERSE (S) (S) (S)	50	G.MAGRO (S)	C.HIRVOTE	J.A.BORRERO	1
8 AL MUAJ (S) (S) (S)	50	J.M.BORRERO	C.BICO	J.M.BORRERO R	14
9 SERENELLA (S)	50	J.HORCAJADA	LAC INTERNACIONAL	G.ARIZCORRETA	5
10 MELANTA	50	J.E.JARCOVIRY	C.HOTELES SANTOS	A.PEREZ VEGA	2
11 SANTA DAN (S) (S) (S)	50	B.MARTIN V	C.MARTIN V	B.MARTIN V	1
12 KAMURAY	50	A.KUNTCHILLA (S) (S)	C.EBBY	LODMEZ	6
13 PORMA (S)	54	SRTA LOPEZ D	C.LOPEZ VILLADARES	O.LOPEZ	16
14 PERCUS MOL	54	N.CORTINEROS	C.EL SABLE	E.PUENTE	8
15 BICO ONTANGO	51	L.SALAZAR	C.HISPANIA	E.PUENTE	8
16 BILALLO	50	A.A.GALLARDO (S)	C.PEÑERA SAT	M.ALONSO	4
17 MARQUE WARRIOR (S)	50	C.CAZALIS (S) (S)	C.EL SABLE	E.PUENTE	7



Aurten kamiseta bereziak jantzi dituzte jokalariek Okendoko frontoiaren omenez.

**TXINTXARRI**

Orain arteko bi hilabete hauetan Santa Ana pala txapelketako sailkapen faserako partidak jokatu dira. Talde bakoitzeko lehenengo biak sailkatu dira final laurdenak jokatzeko.

Guztira 28 bikotek parte hartu dute lau taldeetan banatuta eta aste honetan final laurdenetako partidak jokatu dira. Astelehenero partidaren istripu txiki bat suertatu eta gero bertan

behera utzi eta atzo jokatu zen finalerdietara nor pasako den erabakitzen duen azken partidak.

Astelehenero jokatu da finalerdietako lehenengo partida 18:30etan izango da Imanol Bardaji eta Iñigo Arluziagak osatzen duten bikotea atzoko partiduko garailearen aurka. Bigarren partidak asteartean izango da Carlos Garcia eta Alain Etxelbeste bikotea Xabi Etxezarreta eta Mikel Bardajiren aurka. Finala hurrengo larunbatean jokatu da, Santa Ana egu-

nean. 17:30etan hirugarren eta laugarren postuak nork eskuratuko dituen jakiteko eta 18:30etan txapelketako finala.

Aurtengo Santa Anako txapelketa berezia da, Okendoko frontoiaren jokatu den azkenena izango baita plazaren eraberritzea dela eta. Frontoia bota eta ez da berriker egingo. Horren aurrean jokalariek kamiseta bereziak jantzi dituzte aurtengoa, atzekaldean frontoiaren irudi bat jarri dute "Betirako... Okendo 1936-2008" hitzekin.

# Santos berriro ere txapeldun

Durango orain astebete ospatu zen Euskadiko Txapelketan, Santos Uribe 5 km. lasterketan lehenengo postua eskuratu zuen 70 urte gaineko mailan (berak 73 urte ditu).

**Espainiako Txapelketa**

Orain hamabost egun Gandian ospatu zen Espainiako Txapelketan berriz, ez zen hain ondo ibili. Santosek berak kontatu digunez, ez zen batere ondo sentitu probaren erdialdean eta ez zuen lasterketa bukatu. 10 kilometro lasterketa zen, eta Santos 5.ean gaizki sentitzen hasi zen eta 6.goan proba uztea erabaki zuen.



Santos Durango Euskadiko Txapelketako podiumean urrezko dominarekin.

Egunero

**Erakusketa**

EVA LIZARRAGA margolariaren lanak egongo dira ikusgai hila-bete osoan Jalgin, egun osoan.



Larunbata, 19

**Musika**

BREAKDANCE Saioa (Zarauztetik). Funk eta Hip Hop musikarekin. Jalgi kafe-antzo-kian, 22:30ean.

Osteguna, 24

**Jaialdia**

NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIAN aurten ere hainbat herrialdetako taldeak etorriko dira ikusleen gozamenerako. Manuel Lekuona kulturetxean, iluntzean.

Larunbata, 26

**Antzerkia**

SANTA ANAKO PARODIA antzeztuko da urteroko moduan Okendo plazan iluntzeko 22:30etatik aurrera.



*Artisau Azoka Okendon igandean*

SANTA ANAKO XXV. ARTISAU AZOKA izango da Okendo plazan urtero bezala. Azoka goiz eta arratsaldean izango da, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Herriko hainbat artisau ere bertan izango dira.

IGANDEAN, 20AN  
10:00ETATIK AURRERA  
OKENDO PLAZAN

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



**Oharrak**

**Olitera irteera**

Lasarte-Orriako elkarteak, irteera antolatu du datorren uztailearen 31rako, San Inazio egunerako. Aurten Oliteko Ochoa bodegetara egingo dute irteera eta herrian bertan dagoen jatetxe batean bazkalduko dute. Parte hartu nahi duenak elkartetik pasa eta izen eman besterik ez du uztailearen 25a arte.

**Udal kiroldegiko bazkideak**

Udalaren kirol instalazioak uztailetik abendura erabiltzeko asmoa duenak, urte erdiko abonoa egiteko epea irekita dagoela jakinarazi dute kiroldegitik. Informazio gehiago nahi izanez gero Udal Kirol Zerbitzuetak bulegoetara jo daiteke (943.376182).

**Kiroldegiko udako ordutegia**

Udako ordutegia martxan dago kirol instalazioetan, bai

Kiroldegian, bai Kirol Gunean. Kiroldegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da irekita eta larunbatetan, berriaz, 9:00etatik 13:00etara. Igandetan itxi egingo dute. Bestetik, kiroldegitik erabiltzaileei jakinarazten zaie Lasarte-Oriako igerilekua uztailearen 25an eta 31ean, goizez, zabalik egongo dela, goizeko 9:00etatik 13:00etara.

**Kirol Gunea**

Astelehenetik ostiralera 10etatik 12:30era eta 17etatik 21etara, larunbatetan 9etatik 13etara, igandetan itxita. Udalaren Kirol Instalazioen erabiltzaileei, ondoko hau gogoratzen diegu: Abonua Buruntzaldeko edozein Udalaren Kirol Instalazio, edozein momentutan erabiltzeko bidea ematen duela (gune bakoitzeko arau eta egutegia errespetatuaz.

**Kiroldegia bi astez itxita**

Lasarte-Oriako Udalaren Kirol-Instalazioak abuztuaren 3tik 17ra bitartean (bi egunak barne), itxita egongo dira, instalazioen mantenimendua eta garbiketa egiteko, instalazioak martxan dauden bitartean eginkizun horiek ezin baitira egin. Bestetik, Michelingo kirol gunea uztailearen 31an itxita egongo da. Kiroldegiko ordezkariak jakinarazi dute, egun horietan Kirol Instalazioko Abonatuak beste Instalazioak izango dutela: Urnieta (943-008328) eta Hernani (943-552185).

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behe

**Eskutitzak**

**'Frankismo garaiko errezetak' EAE-ANV-ren aurka**

Egun gogor bat benetan, baina EAE-ANVren udal talde eta beraien botanteentzat hain zuzen. Zirku bat zirudien pleno batean, Audientzia Nazionaleko txandako "inkisidore politikoak" ezarritako suspentsioa onartu eta aplikatu egin da, "errezeta frankista" asumituz, EAE-ANV talde politikoa eta berau ordezkatzeko duen oro "sutara" bidaliz. Beste behin ere, PSOE-PP tandemak Franko diktadorearen "lotuta eta ondo lotuta" lema praktikan jartzeko ikusi ditugu plenoan.

Plenoak gutxi iraun zuen, azkarra izan zen, gaztelaraz esaten den bezala "de corte castrense y marcial" (alkatesaren estiloa), EAE-ANVren aurka akusazioz beterik, PPKo zinegotzia bere onetik aterata, eta harrokeriaz beteriko PSOE batekin, gorrotoz beteriko pleno bat, espainol-nazionalismoz beteriko gorrotozko pleno bat. EAE-ANV izan zen, zirku honen ondorioz, kaltetua izan zen bakarra. Konpostura gorde zuen eta golpea jasotzera itxaron zuen, duintasunez, espainol-nazionalismoaren beste eraso bat jasanez. Plenoa altxatzea falta zen, baino azken momentuan, plenoan zeuden dozena erdi bat lagunek bere protesta aditzera eman zuten, bertan zegoen "sorgin ehiza" salatzeke. 15 segundotan plenoa eten egin zen. Nobedaderik ez. Plenoak azken segundo hauek, "sutan erretzera" dijoaztenentzako, protestatzen duenarentzako, errenditzen ez denarentzako, eta "farsa politiko" hau onartzen ez duenarentzako izateak, izorratu eta estresatu egin dituzte.

"Frankismo demokratikoaren" protagonista izateak ez die axola, berziklatutako eta legalizatutako "GALen espirituari" zuku osoa atereaz. Ohitura daude inpunitate politikora, botereak ematen dien prepotentziara, biolentzia konstituzionalera, ... , azken finean inposatzen. Denak espainolak, beraiek inposatzen digutelako, eta azken hitza, estatu inposatzailearena.

ZPren azken perla Valle de los Caidos-en dugu (Frankismoaren sinbolo adierazgarria eta diktado-

reen hilobi), irabazle eta galtzaileen arteko "adiskidetzeta sinbolo" bezala ber-sortu nahian, faxista eta antifaxisten "anaien arteko" sinbolo baketsu bilakatu nahian. Askorentzat, Espainia frankistaren sinbolo adierazgarri dena, Lasarte-Oriako plenoaren erretratua, ilegalizatzailea, unionista, ... espainiar-nazionalismoaren oinordetzeta, Frankok "lotuta, eta ondo lotuta" utzitako "demokraziaren" izenean.

Plenoa ikusita, PSOE-PPk osatutako taldeak, eskutik helduta, "kaudiloaren" hilobia bisitatzea, bidaia bat egitera gonbidatu gaituzte.

Inaki Múgica Flores, (nahita) gaizki entzuten duenari, asmakizunak gehitzea, esaten ez dena idaztea eta bakoitzak entzun nahi duena era interesatuta batean interpretatzea (inork ez zuen alkatesa aipatu ezta inongo alderdi politikorik ere, ezta inongo mehatxurik egin ere), Valle de los Caidos-aren inguruko aipamen bat egiteak molestatu izanak, salatu eginen zaitu. Ez dakit, sinbolo faxista horrekin identifikatzen zaren, baina hori zure arazoa da. Egoztrisismoak garaitzen zaituzte, eta zuen neurria idazteko, gezurra eta manipulazioa erabiltzeak, asko esaten du zuen talante eta neurri politikoak.

Gogoratu beharra dago, ezker abertzalea beti egon dela estatuaren aparatuek (politikoa, polizia, mediatikoa, juridikoa, ...) mehatxatua eta hauen jarduna sufritu duela, eta estatuaren biolentzia sufritzen duela bere forma eta era guztietan.

Gatazkaren konponbiderako konponbide demokratiko eta politikoa batean aurkituko gara. Nahiko genuke! (eta ez interpretatu mehatxu bat bezala).

**Josu Agirretxe Kerexeta  
(Plenoko partaide eta emaitzaren kontra)**

# Ttakunek udarako antolatzen dituen jarduera arrakastatsuak

HELENA FERRERAS

**Ttakunek ekintza ezberdinak antolatu ditu gazteentzat udarako. 8 eta 18 urte bitarteko gazteak kanpaldietan ibiliko dira eta 2 eta 12 urte bitartekoak udako txokoetan. Herriko gazteek ez dute aspertzeko aukerarik eta ondo ari dira uda aprobetxatzen**

Uztailaren 13an hemezortzi gazte joan ziren KTG kanpaldietara eta dagoeneko hemen daude. Bizkaia eta Gipuzkoako kostaldean zehar ibili dira eta primeran pasa dute Zarauzko gaztetxean herriko taldeekin kontzertuetan, surfa egiten eta piraguan ibiltzen beste gauza askoren artean. Eguraldiak gainera orokorrean lagundu zuen, beraz antolatutako gauza gehienak arazorik gabe egin dituzte. Bigarren txandan, asteazkenean, joan ziren 8 eta 12 urte bitartekoak Albeniz aterpetxera. Uztailaren 27an bueltatuko dira eta ziur ondo pasako dutela lagunartean. Atzo ere, beste hamairu gazte abiatu ziren uztailaren 28ra arte. Nafarroan, Pirineoetan eta kostaldera joango dira ingurua ezagutzera eta ekintza ezberdinak egitera.

Beste alde batetik, txikienek, haur txokoetan hasi dituzte udako oporrak. Uztailaren 2an izan zen lehenengo eguna eta primeran pasatzen ari dira. Haurrak kokatu zitezten ehengo astea lasaia izan zen, taldea ezagutu eta begiraleekin konfidantza hartzeko aprobetxatu zuten. Baina behin ezagututa eta martxa hartu eta gero gelditu gabe ari dira jolas eta ekintza desberdinak egiten egunero. Uztailaren gutzira 385 ume daude txokoetan eta abuztuan 64 egongo dira. Irteerak egiten dituzte, baina herrian bertan ere ekintza asko egiten dituzte, horrela herria

hobeto ezagutu eta ez daukate aspertzeko aukerarik, ez hemen eta ezta kanpoan ere.

Txokoetako txikienek adibidez, Baxerri Show-a egin zuten, begiraleak baserritarrez jantzi eta musikarekin euskal dantzak dantzatu zituzten. Txontxongilo saio bat ere ikusi ahal izan zuten haurrek begiraleek eskainitako. San Fermin eguna ere jaia prestatuz ospatu zuten eta zezenez gain herri kiroletan aritu ziren. Atzo, Amaraun jaialdia ospatu zuten. Urtero moduan 5 eta 7 urte bitartekoei prestatu zuten eta txikienak joan ziren ikusle moduan. Oso ondo pasa zuten eta musika eta dantza ikuskizunekin gozatu zuten, jaialdiz jaialdi dabilta herriko gaztekoak. Baina dena ez da musika eta festa, sukaldaritza ikasten aritu dira tailerretan 2 eta 4 urte bitartekoak eta ogia egin dute bertan. Zubieta-ko haurrekin egotera ere joan dira horrela jende berria ezagutu dute.

Ertainen taldeak, 5 eta 7 urte bitartekoei, bi irteera egin dituzte, bat Tolosara Xaxu konfitegira eta bestea Aiara Pagoeta parkea ikustera. Tolosan bertan ere bota-ura jolasa egin zuten eta hango bizilagunek ura botatzen aritu ziren umeekin, ederki pasa zuten denek, bizilagunen laguntza izan zuten beraz haurrek. Aiara joan zirenean igerilekura joateko asmoa zuten baina eguraldiak ez zuen erraza jarri eta azkenean joan gabe geratu behar izan zuten.

## Ondo pasa eta asko ikasi

Bestalde, tailer zientifikoaren artean urarena izan da arrakastatsua 5 eta 7 urte bitartekoen artean. Uraren propietateak ezagutu dituzte, egoera ezberdinetan nola jokatzen duen eta xaboiarekin jolastu dute. Hilaren 28an ertainen taldeek z olinpikoaren jaia egingo dute. Joku Olinpikoak eta maratokia



Baserri Show jaian ondo pasa zuten haurrek, irudian oiloak eta txerriak.

“ Primeran pasatzen ari dira udako oporrak 2 eta 18 urte bitarteko gazte eta gaztetxoak leku berriak ezagutzen eta jarduera desberdinak egiten

nahastuz kiroletan arituko dira, herriko auzo ezberdinetatik pasako dira antortzarekin maratoiaren berri ematera. Maratokia aprobetxatu eta txokoetako ekintza ezberdinak egin dira horren inguruan.

Zaharren taldea, 8 eta 12 urte bitartekoei ere bi irteera egin dituzte momentuz, bata Orioko hondartzara eta bestea Oiartzunera. Han Arditurri bidegorrian ibili ziren txirrindekin eta ondoren igerilekura joan ziren freskatzeko.

## Artisten moduan

Uztailaren 14ean Okendo plazan "Faktor txoko" egin zuten. Gaur egun modan dauden telebistako programei jarraituz abestu eta dantzatzen aritu ziren gaztetxoak. Txantxa txiki bat ere egin zieten begiraleek, kasting-a egin zuten eta hasieran benetan telebistarako programa batetarako zela pentsatu zuten gaztetxoek. Gezurra zela jakitean batek baino gehiagok atsekabe

galanta eraman zuen. Hala ere jaialdia gero oso ondo atera zen, Break Dance-a dantzatu zuten eta Beti Zu eta Euskaraoko abetsiak abestu zituzten. Datorren astean beste irteera bat egingo dute Bibak egitera helduek. Ttakunek antolatzen dituen udaleku itxieta daudenekin elkartuko dira gaua pasatzera Albeniz aterpetxean eta kalean egin beharko dute lo.

Bestalde, aipatu behar da txikienak Santa Ana jaialdia prestatzen ari direla uztailaren 24rako. Guraso guztiak daude gonbidatuak euren seme alabak kantuan, dantzan eta mozzorrotuta ikustera joateko.

Orokorrean denak gustura dabilta eta antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete gurasoei, udalari eta Adats ileapaindegia, hau da, ekintzak aurrera eramaten lagundu dietenei. •

EUSKARAREN MARATOIA 7

Korritzeko modukoa!

Zer egin nahiko zenuke maratoiaren?

Sartu web orrian eta proposatu!

www.euskararenmaratoia.com



